



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2016/06/23

Batzar Nagusiek ez dabe onartu Aldundiak Bizkaiko "fenomeno" demografikoaren gaineko azterlanik egiterik

Bizkaiko biztanleriak bizi dauen jaiotze tasa txikiaren eta gero eta zahartze handiagoaren gaiak aurkako jarrerak aurkitu ditu gaur Bizkaiko Batzar Nagusietako Iraskunde, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordean. Batzordeak ez dau onartu PPK aurkeztu dauen proposamena, Aldundiak “Bizkaiko fenomeno demografikorako analisi, diagnostiko eta egon daitekezan soluzino posibleen azterlana” egin daian.

Javier Ruiz Batzarretako talde popularreko bozeroalearen eretxiz, demografiaren bilakaerea “oso arazo garrantzitsua” da, eta “nabarmenagoa” da Bizkaian inguruko beste gune batzuetan baino, eta “denporeagaz gero eta larriagoa bilakatzen ari da”. 2016an Euskadik “100.000 biztanle gitxiago” izango ditu, eta horreetatik “65.000” bizkaitarrak izango dira.

Ruizen eretxiz, biztanleriaren zahartzeak egoera hori “larriagotu” egingo dau. “Gero eta gehiago bizitzera gerozan ongizate ereduaren arrakastaren” sintomea dan arren, etorkizunean “arazoak” eragingo ditu, belaunaldi erreleburik ez badago. Hori dala eta, gai horretan inpliketako eskatu deutso Aldundiari.

Baina, popularren proposamenak ia Batzar guztiaren kontrako eretxia jaso dau, Arturo Aldecoa talde mistoko ordezkariarena izan ezik. Ordezkar hori abstenidu egin da bozketan, “ez daukalako argi” Aldundia ete dan azterlan hori egin behar dauena, arazo hori gure ingurune osoan bizi dogulako.

Podemos Bizkaia taldeko Asun Merinero, krisi garai honetan Aldundiak azterlanak egiten diru gehiago gastetearen kontra agertu da. Bere eretxiz, azterketa, egitekotan, Eusko Jaurlaritzak egin beharko leuke “datuak daborduko badaukaguzan arren”, esan dau. Talde moreko bozeroaleak adierazo dauenez, demografia oso lotuta dago politika publikoakaz. Holan, esan dau PPK “erantzukizun handia” dauela herrialdearen egoera demografikoan, “oso gaitza dalako seme-alabak izatea lan prekarioa izanda”.

PSE taldearen eretxiz, arazoa Europa mailakoa da. “Ez dago Aldundiaren eremuaren barruan”, adierazo dau Alexia Castelok. Bere eretxia bat dator Podemos taldearenagaz. Talde horrek esan dauenez, PPrent politikek “ez dabe” biztanleria gaztearen galerea konpentsauko dauen “biztanleria barria” sartzeko modurik erraztu. Biztanle gazteak beharrezkoak dira ongizate estaduari eusten laguntzeko.

Ildo berean, EH Bilduko Joseba Gezuragak, gizarte aurreratu baten arrakastea marketan dauen aldagaietako bat zahartzea dala adierazo ostean, munduan benetan arazo demografikorik dagoan ala ez galdetu deutso Ruizi. Bere esanetan, gai hori etorkizunera begirako “erronka” moduan landu behar da, mahai gainean, biztanleriaren piramidearen alderantziketaz zerikusia daben arazoetarako konponbideak jarrita, “Mendekotasunaren Legea”, adibidez.

Bere aldetik, María Presak (EAJ-PNV) adierazo dauenez, biztanleriaren joera horrek “garatutako herrialde guztietan” dau eragina, eta Bizkaian azterlan hori “ez da beharrezkoa”,



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Eustatek egiten ditualako daborduko gai horren gaineko estadistikak, eta arduradun politikoez kontuan izaten ditue konponbideak planteetako orduan. Eskaria egin deutso PP taldeari, “neurri zehatzak” planteau daizan, eta horreek martxan jartea eztabaidau daitela eskatu dau. Dana dala, adierazo dauenez, “adituek esaten dabenez ez da arrazoizkoa jaiotze tasak lehengora itzultzea”. Diagnostikoa “eginda dago”, orain egin beharrekoa konponbideak “aurreikustea” da, “gehiago izango garalako gizarte zerbitzuak beharko doguzanak sistemari eutsiko deutsienak baino”.

JUDUTARREN KANPORATZEA

Beste alde batetik, talde mistoak baztertu egin dau Bizkaiko Batzarrek, Urribilduen eta Lur Edegiaren Batzar Nagusiek judutarrak Balmasedako uribildutik eta Bizkaiko Jaurrenitik bialtzeko aginduz Gernikako Antiguako Andra Marian 1486ko martiaren 2an eta 7an hartu eben erabagia “indarbakotzeko” adierazpena egiteko eskatzen eban arauz besteko proposamena.

Arturo Aldecoak Bizkaiko Batzarretako gainerako taldeek esandakoa entzun eta bereganatu dau. Gainerako taldeak bat etorri dira orain bost mende izandako gertakizunak “bidebakoak” izan zirala esatean, eta baita beste asko be, “kolonizazinoa, moriskoak kanporatzea, Inkisizinoa edo tormentua”, besteak beste. Baina, halanda be, gai hori XXI. mendean, arauz besteko proposamenaren irudia erabilita planteetea “ez dala egokiena” esan dabe. “Ez dakigu balio askorik izango dauen ordaintzeko tresna moduan”, adierazo dau Jon Andoni Atutxak (EAJ-PNV).



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
23/06/2016

Las Juntas Generales rechazan que la Diputación elabore un estudio sobre el "fenómeno" demográfico en Bizkaia

La cuestión de la baja natalidad y del progresivo envejecimiento de la población vizcaína ha encontrado posturas encontradas hoy en la comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia de las Juntas Generales de Bizkaia que ha rechazado una propuesta del PP para que la Diputación foral elaborase “un estudio de análisis, diagnóstico y posibles soluciones al fenómeno demográfico en Bizkaia”.

Para el portavoz del grupo juntero Popular, Javier Ruiz, la evolución de la demografía es un problema de “primer orden”, que es “más acusado” en Bizkaia que en otras zonas del entorno y que “se agrava con el tiempo”. En el año 2026, la población del País Vasco “descenderá en 100.000 habitantes”, de los cuales “65.000” serán vizcaínos o vizcaínas.

Esta situación se verá “agravada”, según Ruiz, por el envejecimiento de la población que pese a que es un síntoma “de éxito de nuestro modelo de bienestar, el hecho de que cada vez vivamos más”, generará en el futuro “problemas” si no existe un relevo generacional. Por ello, ha pedido a la Diputación que se implique en este asunto.

La propuesta popular se ha encontrado, sin embargo, con el rechazo de prácticamente toda la Cámara, a excepción del representante del grupo mixto, Arturo Aldecoa, que se ha abstenido en la votación al mostrar “dudas” sobre si tiene que ser la Diputación quien elabore dicho estudio, ya que la problemática va más allá de los límites de nuestro territorio.

Asun Merinero, de Podemos Bizkaia, ha rechazado que la Diputación invierta más en estudios en esta época de crisis. Aboga por que el análisis lo realice, en todo caso, el Gobierno vasco, aunque “los datos los tenemos”, ha dicho. La juntera del grupo morado ha sostenido que la demografía está muy ligada con las políticas públicas. En este sentido, ha culpado al PP de tener “gran parte de la responsabilidad” en la situación demográfica del país, porque “es difícil tener hijos con trabajos precarios”.

Desde las filas del PSE, consideran que el problema es europeo. “No está en el ámbito de la Diputación”, ha señalado Alexia Castelo, que cree, al igual que Podemos, que las políticas del PP “no han facilitado” la entrada de población “nueva” que compense la pérdida de población joven, para que contribuyan con el sostenimiento del estado de bienestar.

En la misma línea, Joseba Gezuraga, de EH Bildu, después de considerar que el envejecimiento es una de las variables que marca el éxito de una sociedad avanzada, ha preguntado a Ruiz si en el mundo existe realmente un problema demográfico. Según él, la cuestión se debe abordar como un “reto” a futuro, poniendo sobre la mesa soluciones, como la “Ley de Dependencia”, a cuestiones que tienen que ver con la inversión de la pirámide poblacional.

Por su parte, María Presa (PNV) ha señalado que la tendencia poblacional afecta “a todos los países desarrollados” y que en Bizkaia, el estudio es “innecesario”, puesto que el Eustat ya elabora estadísticas sobre esta cuestión que tienen que ser tenidas en cuenta por los responsables



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

políticos para plantear soluciones. Ha pedido al PP que traiga “medidas concretas” y que se debatan su puesta en marcha, aunque ha advertido que “los expertos dicen que no es razonable revertir la natalidad”. El diagnóstico “está hecho”, ahora toca “prever” soluciones, ya que “seremos más los que necesitemos los servicios sociales, que los que mantengan el sistema”.

EXPULSIÓN DE LOS JUDÍOS

Por su parte, el grupo mixto ha retirado una proposición no de norma en la que se instaba a declarar “nulo” el acuerdo tomado en las Juntas de Villas y en las Juntas de Tierra Llana en Santa María la Antigua en Gernika, los días 2 y 7 de marzo de 1486, por el que se expulsó a la comunidad judía de la Villa de Balmaseda y del Señorío de Bizkaia.

Arturo Aldecoa ha recogido el guante del resto de grupos de la Cámara vizcaína que pese a coincidir con él en que los hechos ocurridos hace medio milenio fueron “injustos”, al igual que otros muchos como “la colonización, la expulsión de los moriscos, la Inquisición o el tormento”, plantear esta cuestión en pleno siglo XXI y a través de la figura de una proposición no de norma, “no es lo más adecuado”. “Tenemos dudas sobre su validez como instrumento de reparación”, ha dicho Jon Andoni Atutxa (PNV).